

## 6-BEZEROEKIKO HARREMANAK

“No Clue”-k eskaintzen duen zerbitzua guztiz fidagarria eta segurua izango da, online ordainketa prozesu enkriptatuen bidez gauzatuak izango direlako. Gainera, gure zerbitzuaren abiadura, efizientzia, kalitatea eta aurkezpenari izugarrizko garrantzia emango zaio jaki hausazkoetaz gozatuko dutenak gustura sentitzeko. Gehigarri eran, balio sentimental eta emozionalak bilatzen ditugu banatzaile-bezero tratua ahalik eta onena izateko. Bezeroek web-orrian haien iritziak eta iradokizunak uzteko gunea ere izango dute, haien aportazioak oso garrantzitsuak baitira gure hazkuntza eta garapenerako.

Azpimarratzekoa da eskainiko dugun jakien kalitatea, familia enpresa txikietatik maitasunarekin egindako produktuak baitira.

